EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

## 2019KO URRIAREN 24KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. (deialdiko aldez aurreko gaia) Mozioa, José Ramón Becerra Carollo Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Basque Country Logistic estrategiari buruz. Mozioari dagokionez, behin betiko ebaztea urriaren 17ko osoko bilkurako bozketan izandako berdinketak, Erregelamenduaren 92.1 artikuluak adierazitakoari jarraituz. [11\11\03\00\00137]

Ezetsia.

## ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 24 DE OCTUBRE DE 2019

1. (asunto previo de la convocatoria) Resolución definitiva de los empates ocurridos en las votaciones del pleno celebrado el día 17 de octubre, de acuerdo con el artículo 92.1 del Reglamento, en relación con la moción presentada por D. José Ramón Becerra Carollo, parlamentario del grupo Elkarrekin Podemos, relativa a la estrategia Basque Country Logistic. [11\11\03\00\00137]

Rechazada.

**2. (deialdiko 1. puntua) Mozioa, Ander Rodriguez Lejarza EH Bildu taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko 126/2019 Dekretuari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00148]**

PV-ETP taldearen 1. eta 2. puntuak onetsi egin dira.

27/2019

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berrikus dezala Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko 126/2019 Dekretua, kontuan hartuta dekretu-proiektuaren edukiari buruz egindako dokumentuak, bereziki Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren aholkularitza juridikoaren txostena eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizpenak.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, dagokion berrikuspenaren ondoren, dekretu berrian alda daitezela arreta egokia emateko beharrezkoak diren alderdiak, besteak beste:

- Langileen ratio egokiak ezartzea, mendekotasun-mailak eta unitate psikogeriatriko eta soziosanitarioen berezitasunak bereizita.

- Egoitza-zentroen tipologia, izaera eta tamaina kontuan hartzea.

- Unitate psikogeriatrikoaren, unitate soziosanitarioaren eta bizikidetza-unitatearen erregulazio zehatza".

**2. (punto 1 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Ander Rodriguez Lejarza, parlamentario del grupo EH Bildu, relativa al Decreto 126/2019, de centros residenciales para personas mayores en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. [11\11\03\00\00148]**

Aprobados los puntos 1 y 2 de la enmienda de totalidad del grupo PV-ETP.

27/2019

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a revisar el Decreto 126/2019 de centros residenciales para personas mayores en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, teniendo en cuenta los documentos elaborados sobre el contenido del proyecto de decreto, especialmente el informe de la asesoría jurídica de la Dirección de Servicios del Departamento de Empleo y Políticas Sociales y los dictámenes de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi y el Consejo Económico y Social Vasco.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, tras la revisión correspondiente, se modifiquen aquellos aspectos del nuevo decreto que sean necesarios para proporcionar una atención adecuada, entre los que se comprenden los siguientes:

- Establecimiento de ratios de personal adecuados, diferenciando los diferentes niveles de dependencia y las especificidades de las unidades psicogeriátricas y sociosanitarias.

- Atención a la tipología, naturaleza y tamaño de los diferentes centros residenciales.

- Regulación precisa de la unidad de psicogeriatría, la unidad sociosanitaria y la unidad de convivencia".

**3. (deialdiko 2. puntua) Mozioa, José Ramón Becerra Carollo Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, eskola-jantokien egungo ereduak behar dituen aldaketei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00146]**

EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

28/2019

"1. Legebiltzarrak uste du eskola-jantokiak zuzenean kudeatzeko egungo sistemak aldaketa eta hobekuntza batzuk behar dituela sistema horren esleipen-, gardentasun- eta kontrol-prozeduretan. Era berean, Legebiltzarrak uste du sistema osagarri baten oinarriak zehaztu behar direla, kudeaketa berritzaile eta deszentralizatua hautatzen duten ikastetxeei aukera bideragarriak emateko.

2. Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, gehienez ere lau hilabeteko aldian, has eta burutu dezala, hezkuntza-komunitate osoarekin, informazio-prozesu bat, eskola-jantokien zerbitzuaren kontratazio-agirietako oinarri tekniko berriak kontrastatzeko, zuzeneko kudeaketa-zerbitzua esleitzeko irizpideek ahalik eta babes handiena izan dezaten.

3. Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berma dezala sukaldeak eraikitzea hala eskatzen duten ikastetxeetan, ikastetxe horiek erabaki ahal izan dezaten zer nolako jantoki-zerbitzua izan nahi duten.

4. Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, lau hilabeteko epean, eta hezkuntza-komunitateko eragileekin lankidetzan –familiak, ikastetxeak eta ordezkaritza sindikala–, burutu dezala eskola-jantokien kudeaketa deszentralizatuaren zenbait ereduren azterketa, haien bideragarritasun tekniko, juridiko eta administratiboari erreparatuz, helburu izanik eskola-jantokiak ikastetxeek berek eta/edo tokiko erakundeekin lankidetzan kudeatzea, betiere zerbitzu publiko izaten jarraituz.

**3. (punto 2 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. José Ramón Becerra Carollo, parlamentario del grupo Elkarrekin Podemos, relativa a los cambios que precisa el actual modelo de gestión de comedores escolares. [11\11\03\00\00146]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES y PV-ETP.

28/2019

"1. El Parlamento considera que el actual sistema de gestión directa de los comedores escolares precisa de cambios y mejoras en sus procedimientos de adjudicación, transparencia y control. Al mismo tiempo, el Parlamento considera necesario concretar las bases de un sistema complementario dirigido a posibilitar opciones viables para aquellos centros educativos que opten por una gestión innovadora y descentralizada.

2. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a que, durante un periodo máximo de cuatro meses, inicie y culmine con toda la comunidad educativa un proceso de información para contrastar las nuevas bases técnicas de los pliegos de contratación del servicio de comedores escolares, a fin de que los criterios de adjudicación del servicio de gestión directa cuenten con el mayor respaldo posible.

3. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a asegurar la construcción de cocinas en aquellos centros que lo soliciten, con el fin de que dichos centros puedan decidir qué tipo de servicio de comedor quieren tener.

4. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a que, en un plazo de cuatro meses y en colaboración con los agentes de la comunidad educativa –familias, centros, representación sindical–, culmine el análisis de los diferentes modelos de gestión descentralizada de los comedores escolares desde el punto de vista de su viabilidad técnica, jurídica y administrativa, de modo que, manteniendo el carácter de servicio público, se posibilite la gestión por los propios centros educativos y/o en colaboración con las instituciones locales.

5. Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, adostutako aldaketen informazio- eta azterketa-prozesu horiek amaitu ondoren, proposa dezala jantokien araudiaren beste idazketa bat, 2020-2021 ikasturteari begira aldaketa horiek sartuko dituena, aurretiaz hezkuntza-komunitateari kontsultatuta. Idazketa berri horrek, betiere, zerbitzuaren kalitatea eta segurtasuna bermatu beharko ditu, bai eta langileen lan-baldintzak ere".

5. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a que, una vez finalizados los citados procesos de información y análisis de los cambios acordados, proponga una nueva redacción de la normativa de comedores que los incorpore de cara al curso 2020-2021, previa consulta con la comunidad educativa, la cual, en todo caso, habrá de garantizar la calidad y seguridad del servicio, así como las condiciones laborales de los trabajadores y trabajadoras".

**4. (deialdiko 3. puntua) Mozioa, Laura Garrido Knörr Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, euskal familiei laguntzeko politiken porrotari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00149]**

Jatorrizko testuaren 4. puntua onetsia.

29/2019

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aitatasun-eszedentzien estaldurarako prestazio ekonomikoaren erregulazioak ez dezala bereizkeriarik egin eremu pribatuan, sektore publikoaren aldean".

**4. (punto 3 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.ª Laura Garrido Knörr, parlamentaria del grupo Popular Vasco, sobre el fracaso de las políticas de apoyo a las familias vascas. [11\11\03\00\00149]**

Aprobado el punto 4 del texto original.

29/2019

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que la regulación de la prestación económica para la cobertura de las excedencias por paternidad no contenga discriminaciones en el ámbito privado respecto al sector público".

**5. (deialdiko 4. puntua) EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, ETB-1eko aurrekontua igotzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00621]**

EH Bildu eta EP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketaren lehenengo puntua onetsi da.

103/2019

"Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten ditu EITB Sortzeko Legeko oinarrizko printzipioak, hau da, euskara eta euskal kulturaren zabalkundea. Horretarako, lehentasun nagusia izango da euskara indartzea eta haren aldeko apustu handiagoa egitea, arreta berezia jarriz ETBren lehen kanalean, haren sorrerako oinarrizko printzipio horietan ezarritako helburuak betetzeko".

**5. (punto 4 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, sobre incrementar el presupuesto de ETB-1. [11\11\02\01\00621]**

Aprobado el primer punto de la enmienda transaccional suscrita por los grupos EH Bildu y EP.

103/2019

"El Parlamento Vasco se ratifica en los principios básicos de la Ley de Creación de EITB, es decir, la difusión del euskera y de la cultura vasca. A tal fin, la prioridad principal será la de fortalecer el euskera y redoblar la apuesta en su favor, con especial énfasis en su primer canal de ETB, al objeto de cumplir los objetivos establecidos en los mencionados principios básicos de su creación".

6. (deialdiko 5. puntua) Mozioa, Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, kirol-arloan eta kulturaren eta ondare historiko eta artistikoaren sustapen-arloan gauzatu gabe dauden aurrekontu-partidak exekutatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00147]

Ezetsia.

6. (punto 5 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa a ejecución de partidas presupuestarias pendientes en materia de deportes y de promoción de la cultura y patrimonio histórico-artístico. [11\11\03\00\00147]

Rechazada.